

Jon Zikinen anai-arrebak...

Narratzailea: Behin batean, bazen Jon izeneko mutil narrats bat. Beti zikin-zikin ibiltzen zen eta horregatik, Jon Zikin deitzen zioten guztiek. Bazkaltzeko garaian bere ama asko haserretzen zen Jon Zikinen zikinkeriekin.

Ama: Jon! Bazkaltzera!

Jon: *(Korrika iritsiz eta eskuz jaten oso era zabarrean)* MMMMMM!
Makarroiak! Aunitz gustatzen zaizkit makarroiak! Ñan, ñan, ñan!

Ama: *(Haserre)* Faborez, Jon, ez itzazu makarroiak hatzekin jan. Erabil ezazu sardexka.

Jon: Jo ama! Hatzekin janda goxoagoak dira makarroiak. Bukatu dut!
Kalera noa.

Jon: Hara, putzu bat! Plisti! Beste putzu bat! Plasta! Ja, ja, ja! Plisti, plasta, plisti, plaust!*(Putzuan saltoka; arropa igurtziz, lokatzez zikintzen; gelditu arropari begira konturatzen da...)* Ai, ai, ai! Zer esango du orain amak? *(Burumakur biribilean bueltaka atea irekitzen du)* Ama, hemen naiz!

Ama: *(Harrituta)* Baina... non ibili zara Jon?

Jon: *(Burumakur)* Putzuetan jolasean.

Ama: Erantzi arropa horiek eta sartu baineran.

Jon: Ez ama, bainerara ez, bainerara ez... Urak busti egiten du ama, eta xaboiak begiak erretzen dizkit.

Ama: Nola ezetz? Bainatzera oraintxe bertan!

Narratzailea: Horrela ibiltzen zen beti Jon Zikin, batzuetan zikin eta besteetan zikinago. Bere gela ere narrats eta hankaz gora zeukan beti. Baina behin gelan zegoela, Maitagarria sartu zen!

Maitagarriak 1,2,3: Baina, baina... zer da hau?

Maitagarriak 1,2: Tira, tira. Guk gela hau txukundu behar dugu.

Maitagarria 3: Bitartean zoaz lorategira zure anai-arrebekin jolastera.

Jon: Nik ez dut anai-arrebarik!

Maitagarria 3: Bai, baduzu. Eta oraindik ez badakizu nor diren, lasai, azkar asko ezagutuko zaituzte eta! Tira zoaz!

Jon: *(Atera, lurrean eseri eta lokatzetan jolasean; bat batean soinu bat entzun eta gora begira jartzen da)* Putzu bat! Plasta! Plisti, plasta! Zer da hori?

Kattagorriak: Kris-kris!

Jon: Kaixo, kattagorriak! Zuek al zarete nire anai-arrebak?

Kattagorriak 1, 2, 3: Gu zure anai-arrebak? Ezta pentsatu ere! Gu garbi eta txukunak gara eta zu zikina zara!

Jon: Kattagorriak ez dira nire anai-arrebak.

Jon: Zer da hori?

Txoriak 1, 2, 3: Txiotxiotxorrotxio. *(Hegan buelta bat eman eta Joni begira geldituz).*

Jon: Kaixo txoriak! Zuek al zarete nire anai-arrebak?

Txoriak 1, 2, 3: Gu zure anai-arrebak? Ezta pentsatu ere! Gu garbi eta txukunak gara eta zu zikina zara!

Jon: Txoriak ere ez dira nire anai-arrebak.

Jon: Zer da hori?

Katuak 1, 2, 3: Miau, miau.

Jon: Kaixo katuak! Zuek al zarete nire anai-arrebak?

Katuak: Gu zure anai-arrebak? Ezta pentsatu ere! Gu garbi eta txukunak gara eta zu zikina zara! Uf!

Jon: Katuak ere ez dira nire anai-arrebak.

Narratzailea: Jon zikinek putzuan jolasten jarraitu zuen eta orduan, ba al dakizue zein etorri zen?

Txerriak: Kurrin, kurrin.

Jon: *(Mespretxuz, bizkarra emanez, beste aldera begira)* Ufff!

Txerriak: Kurrin-kurrin. Egun on, anaia!

Jon: (*Petral-petral*) Ni ez naiz zuen anaia!

Txerriak: Kurrin-kurrin. Bai horixe! Zuk zer uste duzu? Guk ez ditugula gure familiakoak ezagutzen ala?

Jon: (*Negarrez*) Gezurra! Gezurra!

Txerriak: Kurrin-kurrin. Txerrioi asko gustatzen zaigu lokatzetan zikin ibiltzea. Zu ere lokatzetan zaude zikin-zikin eginda. Beraz, gu txerriak baldin bagara, zu ere txerria zara. Ea, egin kurrin-kurrin guk bezala.

Jon: (*Negarrez altxatu eta etxera sartzen da*). Ez, ez eta ez! Nik ez dut txerria izan nahi! Ez dut txerria izan nahi! Etxera noa!.

Narratzailea: Jon bere gelan sartu zenean, maitagarriak txukun-txukun utzi zuela ikusi zuen.

Maitagarria 1: Begira zein txukun eta garbi utzi dizugun gela Jon.

Jon: (*Negarrez*)

Maitagarria 2: Zergatik egiten duzu negar Jon? Ez al zaizkizu gustatzen zure anai-arrebak?

Jon: Txerriak ez dira nire anai-arrebak. Ni ez naiz txerria! Ni ez naiz txerria!

Maitagarria 3: Hori zure esku dago Jon. Zeuk aukeratu: zer nahiago duzu orain arte bezala zikina izan eta txerriekin joan ala etxean gelditu eta garbia izan.

Jon: Garbia izan, garbia izan! Nik ez dut txerria izan nahi! Ez dut kurrin-kurrin egin nahi!

Narratzailea: Eta handik aurrera garbi eta txukun-txukun ibili zen Jon eta inork ez zion gehiago Jon zikin deitu.